



MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2009ko apirilaren 23an egindako batzarraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

“GURUTZE AUZOAN FRONTOI BALIO ANITZA ERAIKITZEKO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BEHIN BETIKOZ ESLEITZEKO PROPOSAMENA

2009ko apirilaren 1ean Udal Osoak, “Gurutze auzoan frontoi balio anitza eraikitzeke proiektuan sartutako obrak” behin behingo izaeraz Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Gurutze auzoan frontoi balio anitza eraikitzeke proiektuan sartutako obrak” behin-betiko Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.ri (NIF A-20557294) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 267.520,88 €koa da (BEZ kanpo). BEZa 42.803,34 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 310.324,22 €koa da eta ordainketa Udal Aurrekontuko 1 1102.623.452.00.02 (A 499/09) partidaren kontura egingo da.

Bestalde, egikaritze epea 4 hilabetekoa da eta obran 10 pertsona okupatuko ditu, 6 enpresan integratutakoak eta 4 kontratazio berrikoak.

Halaber, lizitazioan parte hartzeko proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabakia da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Erreti Eraikuntzak S.L.
- Construcciones Alzola S.A.
- Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita hiru.

